



LUR-GOZO Urdaibai Biosfera Erreserbako kontsumo ekologikoaren elkartea da. Bertan lurralde horretako kontsumitzaileak eta ekoizleak daude. Elkartearen helburua hau da: pertsonen eta gure ingurune ekologikoaren osasuna lagunduko duen kontsumo-eredu arduratsua sustatzea.

Oinarri honekin, gure iritziz, gure lurraldearen oreka ekologikoaren alde egiteaz gain, tokiko sozioekonomia sustatu eta gure inguru ekologiko baliotsua ere hobetuko ditugu.



Elkartearen lotunea denda bat da. Bertan kideek (bazkideek) eskura dauden produktu ekologikoak eros ditzake (zerealak, fuita, lekadunak, ortuariak, gozokiak, esnekiak, soja eratorrikoak, eta abar luzea).



Ekoizkinak Urdaibai bertatik edo ahalik eta lurralde hurbilenetik datoz. Elkartek bermatzen du beraien jatorri ekologikoa, hau da, beraien landaketa eta ekoizpen-prozesuan ez dela substantzia kimiko eta jarduera okerrak erabiltzen, ez ingurumenaren ezta pertsonen kaltetan ere. Gure inguru geografikoan ezin ekoiz daitezkeen produktuak (kafea, azukrea, txokolatea, eta abar), bidezko merkataritza ekologikoa izango dute jatorri.

Barne jarduera

LUR-GOZOk ez du lukro asmorik eta edonor egin daiteke bazkide. Honetarako izen-emate orria bete eta urtean 60 €-ko kuota ordaindu behar da. Elkartean bazkide egin ondoren, dendan nahi duzun guztia eros zenezake. Dendan ez da dirurik erabiltzen. Erosketen gastuak hilerok kobratzen dira, banketxeke

errezibo bidez, bazkide bakoitzari gainzorrrik ezarri gabe.

Elkartean partaidetza da nagusi eta bere erabaki-organoak asanblada izaera du. Edozein bazkidek nahi dituen produktuak eska ditzake, dendako zerbitzua eta produktuen aniztasuna hobetzeko.

Denda Ajangizko Elizalde auzoan, lehengo zerrategiaren aurrean, kokatuta dag. Ordutegia ondoko hau da: martitzenetik barikura, 17:30etatik 20:30etara.

Informazio gehiagarria eskatu nahi izanez gero, erabili mesedez ondoko helbideak:

lurgozo@hotmail.com

www.urdaibai.org



